

KONTRATUA AMAITZEA

Aldeen batek kontratuzko obligazioak betetzen ez dituelako amai daiteke kontratua. Etxebizitza errentan ematen duen pertsonak egoera hauek gertatzen badira eman diezaioke amaiera alokairu-kontratuari: maizterrak ez badu errenta edo fidantza ordaintzen; baimendu gabeko azpierrentamenduak edo lagapenak egiten baditu; kalteak nahita egiten baditu edo baimendu gabeko obrak egiten baditu; jarduera gogaikarriak, osasungaitzak, arriskutsuak, legez kontrakoak eta antzekoak egiten baditu; edo etxebizitza ez badu hitzartutako xederako erabiltzen.

Maizterrak egoera hauek gertatzen badira eman diezaioke amaiera kontratuari: errentatzaileak ez baditu etxebizitzaren bizigarritasunari eusteko behar diren konponketak egiten, edo etxebizitza erabiltzea oztopatzen badu